



Sérgio Henrique Faria eta
Mikel González-Eguino,
BC3ko egoitzan, Leioan.

“Artikoan izotzik gabeko uda izateak Parisko Klimaren Akordioaren helburuak lortzea zailduko du”



Unai Brea
@unaibrea
ARGAZKIA: ARITZ LOIOLA

Ikerketa egiteko Artikoari begira jartzea erabaki zenuten 2013an. Zergatik du hain garrantzi handia han gertatzen denak klima aldaketaren bilakabidean?

Mikel González-Eguino: Garai hartan jakin genuen 2012an Artikoko itsas izotzak atzeraldi izugarria jasan zuela udan, ustekabekoa. Horrek alarma

BC3, klima aldaketa aztertzen duen EAEko zentroko ikerlariak kalkulatu dute udan Artikoko izotz guztia urtzeak –mende erdirako iragarrita dagoen fenomeno– uste baino zailago bihurtuko duela klima aldaketaren aurkako nazioarteko akordioak betetzea. Ikerlanean parte hartu duten Mikel González-Eguinok eta Sérgio Henrique Fariak azaldu digute zergatik.

eragin zien zientzialariei. Guk ikerketa hasteko beharra sumatu genuen Artikoko gertakariak planeta osoko klimari eragiten diotelako, eta ez bakarrik hartz zurien habitatei eta abar.

Sérgio Henrique Faria: Esan izan da udan Artikoa urtzeak abantaila batzuk ekarriko lituzkeela: ontzientzat bide be-

rriak, itsaspeko baliabideak ustiatzeko aukera... Baina zer ondorio global izango du urtzeak. Zehazkiago, zer gertatuko da albedoarekin?

Zer da albedoa?

SHF: Eguzkitik datorren erradiazioa berriro espaziorantz islatzeko gaitasuna.

INOIZ BAINO IZOTZ GUTXIAGO

Erregistroak daudenetik –erabat fidatzeko moduko lehenengoak 70eko hamarkadakoak dira– ez da egon orain bezain izotz gutxiko negurik Artikoan. “2012an udako galera handiagoa izan zen”, azaldu digu Sérgio Henrique Fariak, “eta udako erregistrorik baxuena ordukoa da oraindik, baina hein handi batean izotza eskualde beroagoetara eraman zuen ekaitz baten ondorioz gertatu zen hura”.

Aurten, berriz, udako atzeraldia ez da hain handia izan, baina neguko berreskuratzea inoizko motelena izaten ari da. “Ezohikoa da eta zergatia ez dugu argi. Beharbada beroketa globala bera ari da eragozten izotza bueltatzea. Seguru dakiguna da horrek zerikusia duela Europan jasaten ari garen klima gertakari muturrekoekin: hotz handiegia, ekaitzak...”.



Eta izotzak du gaitasunik handiena. Urtuz gero energia gehiago xurgatzen du Lurrak, eta horrek beroketa dakar. Beroketak, berriz, urtea areagotzen du. Elkar elikatzen eta azeleratzen duten prozesuak dira.

MGE: Izotza galdu ahala, aukera gehiago dago izotza azkarrago galtzeko. Klima aldaketa aztertzen duen nazioarteko zientzialari taldeak, IPCCk, iragarri du baxterre izotzik gabeko lehen uda 2040 eta 2060 artean izango dela Artikoan. Lehen uste zuten hori ez zela mende amaierara arte gertatuko, baina azken urteetako datuek erakutsi dute prozesua askoz arinagoa izango dela. Datu horiek ni neuegiten ari nintzen lanarekin erkatzea erabaki nuen, jakiteko Artikoko albedoa gutxitzeak nola eragingo dien klima aldaketa arintzeko ahaleginei.

Ikerketaren emaitzak argitaratu berri dituzue. Ondorio nagusia da ahalegin horiek, gaur egun Parisko Klimaren Akordioan aurreikusita daudenak, are handiagoak izango direla uste baino.

MGE: Bai. Gure artikuluaaren mezu nagusia da joera mantentzeak eta hamarkada gutxi barru Artikoan izotzik gabeko udak izateak inpaktu handia izango duela berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketari dagokionez. Emisioak zero izateko unea bost eta hamabost urte bitarte aurreratu beharko litzateke Parisko Akordioan jasota dagoen helburu nagusia lortzeko: tenperaturaren igoera globala ez dadila izan bi gradutik gorakoa. Eta klima aldaketaren ondorioak arintzeko erabili beharko den dirutza %20 eta %60 bitartean handitu daiteke.

Zuen ikerlanaren ondorioek kutsu “politikoa” dute, nolabait.

MGE: Nik parte hartu dudana ikerlanetan

“Gure ikerketak larritasuna eman dio klima aldaketaren arazoari, ikusten ari baikara ez dagoela hainbeste denbora”

hau da ondorio garrantzitsuenak dituen. Esaten ari garena kezagarria da, eta jakin egin behar da.

SHF: Ikerketa honek larritasun handiagoa ematen dio arazoari. Nik ez nuen espero emaitza hain gogorra izango zenik. Diskurtsoa beti izan da “oraindik denbora dago”. Bada, ikusten ari gara ez dagoela hainbeste denbora.

MGE: Guk ez diegu politikariei zuzenean ahalegin handiagoa eskatzen, baina jakinarazi egin behar diegu gure ikerketaren ondorioen arabera Parisko Akordioaren helburuak lortzea ez dela hain erraza izango. Beroketa globala bi gradutik behera mantentzeko helburua aipatu dut, baina gainera Hitzarmenak dio ahal den neurrian tenperatura igoera 1,5 °C ez gainditzen saiatu behar gara. Gure ondorioak argiak dira: hori lortzea dagoeneko ezinezkoa da emisio negatiborik gabe. Hau da, atmosferatik karbono dioxidoa kenduta.

Nola?

MGE: Gaur egun dauden modu baxurrak dira, batetik, basoberritze masiboa –zuhaitzak landatzea haiek karbono dioxidoa xurga dezaten–; bestetik, karbono atzemate eta biltegitratzea izeneko

teknologia, oraindik zenbat kostatuko zaigun ere ez dakiguna, ez baitago hori egiten duen plantarik munduan; eta hirugarrenik geoingeniaritza, bide arriskutsua, planetaren geologia eraldatzen duen heinean.

Hiru bideak izan dira oso kritikatuak ekar ditzaketen ondorioengatik, eta benetan funtzionatuko ote luketen ere zalantzan jarri dute askok.

MGE: Hala da. Edozein kasutan, horiek 1,5 graduen muga ez gainditzeko neurriak lirateke. Garrantzitsua bi graduena ez gainditzea da, eta horretarako emisio murrizketa azkar hasi beharko litzateke.

Hori guztia jakinda, zer iritzi duzue urteroko klimaren gailurren eta gainerako ahalegin diplomatikoen erritmoaz?

MGE: Hasteko, gogoan izan behar da azken gailurra, Marrakexekoa, Donald Trump presidente aukeratu zuten une berean egin zela, eta horrek zaildu egin zuela han zeudenek behar bezala negoziatzea. Nik uste dut arlo askotan aurrerapauso asko egiten ari direla eta hori ontzat jo behar dela, baina ez dugu emisioak murriztea lortzen, eta hori da gakoetako bat. Arazoak askoz azkarrago egiten du aurrera erantzunek baino, eta noizbait aldatu egin beharko da joera hori. Borondate politikoa behar da, eta ez hori bakarrik, baita herritarren sostengua ere.

SHF: Dena den, gu baikorrak gara. Motel gabilta baina azkenean irtenbideak aurkituko ditugu, hasiera batean nahiko genituzkeenak ez izan arren. Hobe izango zatekeen egoera honetara iritsi ez izana, baina behin iritsita zer? Bada, garestiagoa izango da, baina konponbidea aurkituko dugu. ■